

KONTROL MOZIOA. UDAL ERAKUNDEETAN PROPORZIONALTASUNA DELA ETA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udal Batzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, *udal erakundeetan proportzionaltasuna dela-eta*, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Zerbitzu Orokorretako Batzordean 2015ko uztailaren 20ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Eneko Goiak, Alkate izendatu eta gero, aurreko Alkateak udal taldeekiko udal erakundetan izan zuen begirunea, hau da, hauetan Udalbatzako proportzionaltasuna zuhurtziz mantentzea, bat egingo zuela adierazi zuen. Organismo Autonomoetan bere hitza bete du, baina bi udal erakundeetan ez du Udalbatzaren proportzionaltasuna mantendu, eta ez dugu honen arrazoia ulertzen.

Dbus eta Donostiako Sustapenean, Udalak bederatzi kontseilari hautatzen ditu eta horietatik EAJk hiru izendatu ditu, PSEk beste hiru eta EH BILDUK bakarra, gainontzeko udal taldeek bezala. Beraz, adibide gisa, PSEk zazpi zinegotzirekin hiru kontseilari ditu eta gure taldeak seirekin bakarra. Gainera, Gobernuak kontseilarien bi herenak izendatu ditu, Udalbatzan portzentaia hortara iristen ez denean. Gehiengo osoa mantenduko luke bost kontseilari izendatuta, horregatik EH BILDUren kaltetan hartutako erabaki hau ez da ez ulerkorra ezta onargarria ere. Gainera Udal Batzordean Viles jaunak egindako adierazpenetan ez zion ez gaiari heldu ezta erantzunik eman ere. Aurreikuspen hauek ikusita EH Bildu udal taldeak honako MOZIOA aurkezten du, Udalbatzak onar dezan:

ERABAKIA

Udalbatzak, Udal Gobernuari eskatzen dio, Udalbatzaren proportzionaltasuna errespetatu dezala eta ondorioz bi udal erakundeetan (Dbus eta Donostiako Sustapena) EH BILDUri dagozkion bi kontseilariak izendatzea, Gobernuak gehiengo osoa mantenduz bost kontseilari izanik eta beste Udal taldeek bakarra, orain bezala, udalbatzaren osaketari erreparatuz.

Donostian 2015eko uztailaren 24an



Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia